

Europar hirien gutuna garapen jasangarriaren gainean (Aalborg-eko gutuna)

(1994.eko maiatzaren 27an Danimarkako Aalborgen hiri jasangarrien gaineko europar Biltzarrean parte hartutakoek onartu bezala)

- I. zatia: Adostasun adierazpena: europar hiriak garapen jasangarriantza.
- II. zatia: Europar hiri jasangarrien ekinaldia.
- III. zatia: 21 Programako toki ekimenetan esku hartzea: tokian tokiko jarduera plangintzak garapen jasangarriaren alde.

Aalborgeko gutuna onartu zuten 1994.eko maiatzaren 24tik 27 arte hiri jasangarriei buruzko europar Biltzarrean esku hartutakoek. Biltzarra Europako Batzordeak eta Aalborg hiriak sustatu zuten eta ingurugiroko toki ekimenen nazioarteko Kontseiluak (ICLEI) antolatu. Erakunde horrek bere gain hartu zuen gutunaren proiektua lantzeko erantzukizuna, Ipar Renania-Westfalia alemaniar estatu federatuko hiri planifikazio eta garraioko Ministerioaz bat. Gutunak lankide askoren iritzi eta terminoak jaso ditu.

Aalborgeko gutuna hasian-hasi izenpetu zuten Europako 80 toki agintarik eta 253 lagun gehiagok -nazioarteko erakunde, nazio gobernu eta zientzia erakundeen ordezkari eta aholkulari zein banako-. Gutuna izenpetzean, Europako hiriek, udalerri txikiek eta lurralde unitateek hitz eman zuten 21 Programako toki ekimenetan esku hartuko zutela eta garapen jasangarrira abiatzeko epe luzeko programak abiarazteko, europar hiri jasangarrien ekinaldia hasteaz batera.

Kartaren proiektua eztabaidatu zuten Aalborgeko Biltzarreko 36 ikastaro praktikoetan esku harturiko 600 lagunek baino gehiagok. Azken testuari hainbat ohar eta iradozikun gehitu zitzaizkion. Hala ere, Gutuna idatzi zuen taldeak iritzi zion azaleko eta askoneko aldaketak egiteko proposamen askok astiroago aztertu eta eztabaidatu behar zirela eta ez zegoela idazketa ñabardura gisa jasotzerik. Ondorioz proposatu zen plazaraturiko aldaketak aztertzeko ardura ekinaldia koordinatzeko batzordeak har zezala eta Gutuna areago lan zedila eta berariaz azter zezatela 1996.eko irailean Lisboan egin beharreko hiri jasangarrien bigarren europar Biltzarreko esku hartzaileek.

EUOPAR HIRIEN GUTUNA GARAPEN JASANGARRIAREN GAINEAN (Aalborg-eko gutuna)

(1994.eko maiatzaren 27an Danimarkako Aalborgen hiri jasangarrien gaineko europar Biltzarrean parte hartutakoek onartu bezala)

- I. zatia: Adostasun adierazpena: europar hiriak garapen jasangarrirantz.
- II. zatia: Europar hiri jasangarrien ekinaldia.
- III. zatia: 21 Programako toki ekimenetan esku hartzea: tokian tokiko jarduera plangintzak garapen jasangarriaren alde.

I. zatia Adostasun adierazpena Europar hiriak garapen jasangarrirantz

I.1 Europar hirien zeregina

Guk, europar hiriok, Gutunaren sinatzaile gisa, adierazten dugu ezen urteak joan urteak etorri inperioak, estatuak eta erregimenak ezagutu ditugula eta bizirik iraun dugula gizarte biziaren gune gisa, gure ekonomien eroale eta kulturaren, ondarearen eta ohituren zainatzaile. Familia eta auzoez bat, hiriak gure gizarte eta estatuen oinarria izan dira, industriaren, eskulangintzaren, merkataritzaren, hezkuntzaren eta gobernuaren gunea.

Ondo jabetuta gaude egungo hiriko bizimodua, bereziki lan eta zereginen banaketaren erregimena, lurzoruaren erabilera, garraioa, industri ekoizpena, nekazaritza, kontsumoa eta aisialdia, hau da, gure bizi maila, badirela gizadiak aurre egin beharreko ingurune arazo askoren errudun bihurtzen gaituzten zergatikoak. Aurrekoa oso esanguratsua da kontuan izanez gero europar populazioaren %80 hiri aldeetan bizi dela.

Ondo ikasita dugu herri industrializatuetakoko egungo lehengai kontsumoaren mailak ezin dituztela munduko biztanle guztiak eskuratu, are gutxiago hurrengo belaunaldiek, berezko ondasunak suntsitu gabe.

Bete-bete sinestuta gaude planetako gizakien bizitza ezingo dela aurrera eraman tokian tokiko gizarteak bideragarriak izan ezean. Tokian tokiko gobernuak hurbil dago ingurune arazoak antzematen diren lekuetatik eta oso hurbil herritarretatik eta erantzulea da gainontzeko gobernu maila batera gizakiaren eta izadiaren ongizatearekiko. Ondorioz, hiriak zeregin erabakiorra dute bizi, ekoiztu eta kontsumatzeko moduak zein espazioa banatzeko irizpideak aldatzeko jardunbidean.

I.2 Jasangarritasunaren nozioa eta hastapenak

Gu, hiriok, jabetuta gaude ezen garapen jasangarriaren kontzeptuak lagunduko digula gure bizi maila izadiaren igor ahalmenean oinarritzen. Ahaleginak egiten ditugu gizarte zuzentasuna, ekonomia jasangarriak eta ingurugiro iraunkorra lortzeko. Gizarte

zuzentasuna ezinbestean igaro behar da ekonomi jasangarritasunetik eta berdintasunetik. Horrek eskatuko digu energia berriztagarri, material eta ur baliabideak erabiltzen ditugunean natura sistemek lehengo mailetara itzultzeko ahalmenak ez gainditzeko eta baliabide berriztagaitzak erabiltzeko lastertasunak ez gainditzeko baliabide berriztagarri iraunkorrak ordezkatzeko erritmoa. Ingurune jasangarritasunak, halaber, adierazi nahi du kutsatzaileak igortzeko erritmoak ez duela gainditu behar aireak, urak eta lurzorua duten zurrupatze eta eraldatze gaitasuna.

Ingurune jasangarritasunak, gainera, berariaz eskatzen du biologi aniztasunari, osasun publikoari eta airearen, uraren eta lurzorua kalitateari eusteko gizadiaren zein landare eta animalien bizia eta ongizatea behar besteko mailetan betiko izan daitezen.

I.3 Jasangarritasunerantzko toki estrategiak

Gu, hiriok, erabat etsita gaude hiria halaber badela erakunderik handiena hasian-hasi eutsi ahal izateko egungo munduari eragiten dioten arkitektura, gizarte, ekonomia, gizarte, ingurune eta berezko baliabideen desorekei, baita unitaterik txikiena arazoak behar bezala ebatzi ahal izateko modu bateratu, holistiko eta jasangarrian. Hiri guztiak elkarren desberdinak direnez gero, jasangarritasunerantz eramango gaituzten bide gure-gureak aurkitu beharko ditugu. Jasangarritasun hastapenak gure politika guztietan jasoko ditugu eta bakoitzaren indarrak estrategia egokien oinarri bihurtuko ditugu zeinek bere tokian.

I.4 Jasangarritasuna oreka bilatzeko tokian tokiko sormen jardunbidetzat

Guk, hiriok, onartzen dugu jasangarritasuna ez dela ez ametsa ezta egoera aldaezina ere, tokian tokiko sormen jardunbidea baizik, maila horretan erabakimena duten eremu guztietara hedatzekoa. Etengabe ahalbidetzen du hiri ekosistema orekara hurbiltzen edo horretatik urruntzen duten ekintzen gaineko informazioaren joan-etorria. Hiri kudeaketa halako prozesu baten bitartez bildutako informazioan oinarritzerakoan, hiriak osotasun organiko gisa lan egiten duela ulertzen da eta jarduera garrantzitsu guztien eraginak agerikoak dira. Jardunbide mota horien bitartez, hiriak eta biztanleek aukera egin dezakete jakinaren gainean. Jasangarritasunean oinarrituriko gestio sistemak ahalbidetuko du egungo lagunen interesak ez ezik, etorkizuneko belaunaldietakoenak ere defendatuko dituzten erabakiak hartzea.

I.5 Arazoak negoziazio irekien bitartez konpontzea

Guk, hiriok, aitortu nahi dugu geure arazoak ezin dizkiegula inguramen handiagoei edo etorkizuneko belaunaldietakoei bizkarreratu. Ondorioz, geure arazo eta desorekak lehenik eta behin geurez konpondu behar ditugu edo, beharrezkoa izanez gero, eskualde zein nazio erakunde handiago batek lagunduta. Horra hor arazoak negoziazio irekien bitartez konpontzeko hastapena, hori erabilta hiri bakoitzak askeago joka baitezake bere jardueren nolakotasunak erabakitzerakoan.

I.6 Hiri ekonomia jasangarritasunerantz

Guk, hiriok, uste dugu ezen gure ekonomi garapena mugatzea bihurtu zaigula berezko ondasun, airea, lurra, ura eta basoak bezala. Ondorioz, kapital horretan inbertitu behar dugu, honako lehentasun hurrenkera oinarri:

- 1.- egun dagoen berezko ondasuna (lurpeko ur gordailuak, lurzorua, animalia espezie bitxiak) zaintzen inbertitzea;
- 2.- berezko ondasunak hazten jardutea, egungo ustiatze maila murriztuta (adibidez, energia berriztagaitzena);
- 3.- berezko ondasunen gordailuen gaineko presioa arintzea berriak sortzearen bitartez, hala nola hiriko astialdi parkeak, berezko basoen gaineko presioa murrizteko;
- 4.- produktuen amaierako etekina gehitzea, adibidez energi etekin handiko eraikinak edo ingurugiroa asko kaltetzen ez duten garraiobide publikoak.

I.7 Gizarte justizia hiri jasangarrirako

Gu, hiriok, jakitun gaude inguru arazoek (zarata, trafiko kutsadura, aisialdiko gunetik ez izatea, etxebizitza osasungabeak, lorategirik ez izatea) gehien bat behartsuak eta arazoak konpontzeko ahalmen urriko lagunak kaltetzen dituztela. Aberastasunak berdina ez banatzea da jokabide eramangaitzaren sorrera eta oztoparria ere egoera aldatu ahal izateko. Biztanleen oinarritzako gizarte beharrak eta osasun, enplegu eta etxebizitza programak ingurugiroa babesteko lanetara erakarri nahi ditugu. Bizimodu jasangarrien lehenengo esperientzetatik ikasi nahi dugu, herritarren bizi kalitatea hobetu ahal izateko, kontsumoa handiagotu beharrean.

Elkartearen jasangarritasunari eusten lagunduko duten lanpostuak sortzen ahalginduko gara, langabezia murrizteko. Enplegua erakarri edo sortzen saiatzerakoan, ekonomi aukeren ondorioak aztertuko ditugu jasangarritasuna gogoan. sortuko diren lanpostu eta produktu iraunkorrek jasangarritasunaren hastapenak bete ditzaten.

I.8 Lurzorua erabilera jasangarria

Guk, hiriok, aitortzen dugu ezen garrantzitsua dela gure toki agintariak lurzoruaren erabilera arautzeko politika eraginkorrak abiaraztea, plan guztien estrategi ingurune ebaluazioa kontuan izanda. Berariaz baliatu behar ditugu hiri gune handienek garraio eta energi hornidura zerbitzu publiko eraginkorrak eskaintzeko eskaintako ahalbideak, bide batez garapenaren giza neurriari eusten zaiolarik. Hirietako erdigunea zaharberritzeko programei zein aldirietako alde berriak planifikatzeari ekitekoan, hainbat zeregin elkartzen saiatuko gara mugikortasuna murriztearen. Lurraldearteko berdintasunezko elkarmenpekotasunak aukera eman beharko digu baserririk kalerako eta itzultzeko joan-etorriak orekatzeko eta hiriek inguruetako baliabideak ustiatu baino egin ez dezaten galerazteko.

I.9 Hiri mugikortasun jasangarria

Guk, hiriok, ahalegindu behar dugu sarbideak hobetzen eta hiri ongizatea eta bizimoduak iraunarazten, garraioa murrizteaz batera. Badakigu hiria bideragarria izan dadin ezinbestekok direla derrigorrez gutxiago mugitu behar izatea eta motoredun ibilgailuak beharrik ez dagoela erabiltzeari uztea. Lehentasuna emango diegu ingurugiroa kaltetzen ez duten garraiobideei (batez ere, oinez, bizikletaz edo garraio publikoez mugitzea) eta egingo ditugun arautze ahaleginen erdi-erdian kokatuko dugu garraiobide horien multzoa. Hiriko motoredun garraiobideek ordezkio zeregin bat izan behar dute, alegia, udal zerbitzuetara heltzeko bideak erraztea eta hirietako ekonomi jarduerari eustea.

I.10 Erantzukizuna munduko klimaren aldaketan

Gu, hiriok, jabetuta gaude planeta berotzeak natura eta hiri guneei zein geroko belaunaldiei dakartzkien kalteek erantzun egokia eskatzen dutela negutegi ondorioa sortzen duten gas jaulkipenak ahalik eta arinen orekatu eta, gero, murrizteko. Halaber, garrantzitsua da munduko biomasa hornidurak (basoak, fitoplaktona) babestea, zeregin erabakiorra baitute planetako karbono zikloan. Erregai fosilen jaulkipenak murriztuko badira, behar-beharrezkoak izango dira hautabideak eta hiri ingurunea energi sistema gisa modu agortzailean ezagutzea oinarri hartzen duten politika eta ekimenak. hautabide jasangarri bakarrak energia berriztagarriak dira.

I.11 Ekosistema toxikapenari aurrea hartzea

Gu, hiriok, jabetuta gaude eguratseko, uretako, lurreko eta elikagaietako gai toxikoak gehituz doazela eta gai horiek mehatxu gero eta handiagoa direla osasun publikorako eta ekosistemetarako. Bitarteko guztiak erabiliko ditugu kutsadura gerarazteko eta jatorrian bertan aurrea hartzeko.

I.12 Tokiko autogestioa ezinbesteko baldintza moduan

Gu, hiriok, bete-betean uste dugu bizimodu jasangarriak abiarazteko behar beste indar, ezagupen eta sormenaren jabeak garela, baita gure gizaldek sortarazi eta gestionatzeko garapen jasangarriaren ikuspegitik. Demokrazi bidez hautaturiko toki elkarteek ordezkari garen aldetik, gerturik gaude gure hiriak garapen jasangarria begi aurrean dugula berriro antolatze erantzukizunari eusteko. Hiriek erronka horri aurpegi emateko duten ahalmena besteren ordezkari jarduteko hastapenak emango dizkien gestio eskubideen baitan izango dira. Funtsezkoa da toki agintariekin behar beste eskuduntza eta ekonomi berme sendoa izatea.

I.13 Herritarraren protagonista eta gizaldearen esku hartzea

Guk, hiriok, hitz ematen dugu, Rio de Janeiroko gailurrean onarturiko 21 Programa dokumentu giltzarriak emandako aginduez bat, lankidetzan jardungo dugula gure elkartearen sektore guztiekin -herritarrak, enpresak, interes taldeak- programa hori bultzatzeko toki plangintzak prestatzerakoan. Ondo kontuan izango dugu Europako Elkarrekin "Garapen jasangarriarentzat" deritzon agiriaren ingurunearen bosgarren ekintza programan egindako deia, programa ezartzeko erantzukizuna gizarte sektore guztien artean banatzeko. Informazioa eskuratzeko bideak bermatuko dizkiegu herritar eta interes talde guztiei eta halakoek

erabakiak hartzeko toki jardunbideetan esku hartu ahal izatea zainduko dugu. Bide guztiak erabilia landuko ditugu garapen jasagarriari buruzko hezkuntza eta prestakuntza, herri xehearentzat ez ezik, toki administrazioetako hautetsi eta langileentzat ere.

I.14 Jasangarritasuneranzko hiri gestioaren tresnak

Guk, hiriok, hitz ematen dugu eskura ditugun politika eta teknika lanabesak erabiliko ditugula hiri gestioaren ekosistema planteamendua lortzeko. Ingurune datuak jaso eta landu zein ingurune plangintzarako tresna sorta oparo batera joko dugu, baita lege, ekonomia eta komunikazio tresnak (aztertarauak, zergak eta eskubideak) eta ohartarazteko baliabideak (herritarraren parte hartzea barne) erabili ere. Ingurune kontularitzako sistema berriak sortzen ahaleginduko gara, gure natura baliabideak baliabide artifiziala, “dirua”, bezain eraginkor gestionatzeko.

Badakigu gure erabaki eta kontrolek (bereziki ingurune zaintza, ingurune ikuskaritzak, ingurune ondorioen ebaluazioa, kontularitza, balantzeak eta txostenak) hainbat adierazle izan behar dituztela gogoan, hala nola hiri ingurunearen kalitatea, hiri fluxu eta ereduak eta, batez ere, hiri sistemen jasangarritasun erakusleak.

Guk, hiriok, onartzen dugu ezen arrakastaz erabili dela hainbat europar hiritan ingurugirorako politika eta ekintza sorta onuragarria. Tresna baliagarriak dira garapen eramanezina gerarazi eta murrizteko, baina berez ezin dute gizartearen joera hori irauli. Hala ere, ekologi oinari sendo hori edukita, hiriak egoera ezin hobean daude lehenengo urratsa eman eta politika eta ekintza horiek administrazio sisteman barneratzeko, tokiko hiri ekonomiak gestionatu ahal izateko jasangarritasun jardunbide osoko baten bitartez. Jardunbide horretan gure estrategiak asmatu eta saiatu zein esperientziak elkartrukatu besterik ez dugu.

II. zatia

Europar hiri jasangarrien ekinaldia

Guk, europar hiriok, honako Gutun hau izenpetu baitugu, elkarlanean jardungo dugu garapen jasangarriaren alde, toki mailan izandako esperientziak eta arrakasta oinarritzat hartuko duen ikasketa jardunbidearen baitan. Elkar adoretuko dugu epe luzeko tokiko ekintza planak (tokiko 21 programak) abiaraztera, horrela indartuko dugu-eta agintarien arteko lankidetzak, bide batez jardunbide hori barneratuko dugula Europako Batasunak hiri ingurugiroaren alorrean abiarazitako ekimenetan.

Abian jarri dugu europar hiri jasangarrien ekinaldia hiriei adorea eta laguntza emateko asmoz garapen jasangarriaren alde egiten dituzten lanetan. Ekinaldiko hasierako aldiak bi urte iraungo ditu eta 1996. urtean ebaluatuko da hiri jasangarrien bigarren europar bilkuran.

Gonbitea egin nahi diegu tokiko agintari guztiei, hirietakoei zein herri txikietakoei edo probintzietakoei eta europar toki agintarien sare guztiei ekimenean esku hartzera honako Gutun hau onartu eta izenpetuta.

Europar toki agintarien sare guztiei eskatzen diegu ekinaldia koordina dezaten. Koordinazio batzorde bat eratuko da, sare horien ordezkariak osatua. Neurriak hartuko dira inongo saretako kide ez diren toki agintarientzat.

Kanpainak honako helburu hauek izango lituzke:

- europar hirien elkarlaguntza erraztea, garapen jasangarritasuneko politikak asmatu eta indarrean jartzeko;
- toki mailan arrakasta izandako esperientzien gaineko informazioa bildu eta hedatzea;
- garapen jasangarriaren hastapena sustatzea gainontzeko toki agintarien artean;
- Gutunaren beste izenpetzaile batzuk lortzea;
- urtero "hiri jasangarriaren saria" antolatzea;
- Europako Batzordeari politika gomendioak egitea;
- ekarpena bidaltzea hiri inguruneke adituen taldeak hiri jasangarrien gainean eginiko txostenetara;
- toki erabakimenaren arduradunei laguntzea Europako Batasunaren lege eta gomendioak erabiltzen;
- ekinaldiari buruzko argibide liburuxka argitaratzea.

Ekintza horiek kanpaina koordinazioa ezartzeko eskatuko dute.

Beste erakunde batzuei ere gonbitea bidaliko diegu ekinaldian zuzenean esku har dezaten.

III. zatia

21 Programako toki ekimenetan esku hartzea: jasangarritasunaren aldeko tokiko ekintza planak

Guk, europar hiriok, honako Gutun hau izenpetu dugunez gero, hitz ematen dugu gutun hau izenpetuta eta europar hiri jasangarrien ekinaldian esku hartuta, gure elkarteetan 1996. urte amaiera baino lehenago 21 Programaz adostasuna lortzen ahaleginduko garela. Horrela erantzuna emango diogu 21 Programako 28. atalak xedaturiko aginduari, 1992. urteko ekainean Rioko gailurrean onartu bezala. Gure tokiko ekintzen bitartez, Europako Batasunak ingurugiroaren alorrean emandako “Garapen jasangarrirantz” bosgarren ekintza programa indarrean jartzen lagunduko dugu. 21 Programa bultzatuko toki ekimenak gutun honetako lehenengo zatia oinarri hartuta gauzatuko dira.

Tokiko ekintza planaren prestaketak honako aldi hauek jasotzea proposatzen dugu:

- * egun dauden plangintza eta finantza ereduak onartzea, baita beste plan eta programa batzuk ere;
- * galdeketa publiko zabalen bitartez arazoak eta horien zergatikoak sistematikoki identifikatzea;
- * zereginen lehentasunak finkatzea antzemandako arazoei aurre egiteko;
- * elkarte jasangarriaren eredia sortzea elkarteko sektore guztiak barne hartuko duen jardunbide partehartzaile baten bitartez;
- * hautabidezko estrategi aukerak aztertu eta ebaluatzea;
- * epe luzeko ekintza plana ezartzea garapen jasangarriaren alde, neurtzeko moduko xedeak barne dituela,
- * plana nola gauzatuko den programatzea, baita egutegia eta erantzukizuna partaideen artean nola banatu prestatzea ere;
- * plana nola gauzatzen den aztertu eta haren berri emateko sistemak eta jardunbideak ezartzea.

Berrikusi beharko dugu gure tokiko agintarien barne hitzarmenak egokiak eta eraginkorrak ote diren 21 Programako toki ekimenak gauzatzeko, garapen jasangarrien aldeko epe luzeko tokiko ekintza planak barne. Beharrezkoa izan daiteke beste ahalegin batzuk ere egitea antolatze gaitasuna hobetzeko, berriro aztertuko beharko direlarik politika hitzarmenak, administrazio jardunbideak, talde lanak eta lan disziplinartekoak, eskurako giza baliabideak eta agintarien elkarlana, elkarte eta sareak ere barne daudela.

1994.eko maiatzaren 27an Aalborgen (Danimarka) sinatua.